txintxarri
2022-01-14 OSTIRALA / 1570. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Elkarbizitzaren aldarria, hiritik herrira

Sare Herritarraren deialdiari erantzun diote lasarteoriatarrek. Salbuespen legediarekin amaitzeko aldarria egin dute / 5

TXINTXARRI

Egurrarekin, artelanak

Zurmailu zurlanketa elkarteak erakusketa ireki du Antonio Mercero aretoan, hilaren 23ra arte / 9

Lasarte-Oriarentzat berdintasun teknikaria eskatu dute herritarrek, udal erregistroan / 2

Naroa Furundarena eta Jose Ramon Latorre herritarrek podiumean hasi dute 2022. urtea / 10

MERKEALDIA
+ 2. BETAURREKOA OPARI

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

Dozenaka lasarteoriatarrek bat egin zuten herriko mugimendu feministaren deialdiarekin. IDOIA TELLERIA

Berdintasun teknikaria eskatu dute elkarrekin

Berdintasun teknikari postua sortu eta Gizarte Zerbitzuak indartzeko eskaera egin dute lasarteoriatarrek. Jakinarazi dute Hondarribiarekin batera halako udal langilerik ez duen herri bakarra dela Lasarte-Oria. Udal erregistroan sartu dituzte eskaera guztiak

Txintxarri

Lasarte-Oriako mugimendu feministak denbora luzez aldarrikatu du berdintasun teknikari baten beharra. 2021. urte amaierarekin, ordea, aldarrikapenak erregistratu dituzte. Lasarteoriatarrak deialdi masibo batera deitu zituzten, udalean eskariak erregistratzeko asmoz. Hala nahi eta hala egin. Abenduaren 30 eguerdian elkartu ziren Okendo plazan. Berdintasun teknikaria eskatzeko esku-orriak bete, sinatu eta ilara egin zuten udalean erregistratu ahal izateko. Berdintasun teknikari postua sortzeko eskaera egiteaz gain, Gizarte Zerbitzuak indartzea ere galdegin dute.

Udaletxean aurkeztutako idatzian jakitera eman dute Hondarribiarekin batera, halako udal langilerik ez duen herri bakarra dela Lasarte-Oria, eta horren ondorioak "larriak" direla azpimarratu. Hainbat adibide jarri dituzte, horien artean hau: "Indarkeria matxista salatzera Udaltzaingora joan diren hainbat emakumek udaltzainen partetik jasotako arreta erasokorra salatu izan dute. Ez dago arreta hau behar bezalakoa izatea bermatuko duen protokolorik indarrean eta udaltzainek formakuntza falta dute".

Emakumeak aktibo izan eta hori bistaratzeko helburuz sortu dute 'Emakumeak Mugimenduan'

Emakumea eta kirola programaren baitan diseinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo hori, eta emakumezkoen aktibotasuna bistaratzea eta garatzen laguntzea du helburu. Horrela, Gipuzkoako emakumeen jarduera fisikoa areagotzeko, hainbat ekimen antolatu dituzte eta horietako bat da Emakumeok Mugimenduan Erronka Digital Solidarioa: 40.000 kilometro munduari bira emateko: "Gipuzkoatik hasi, meridianoa zeharkatu eta Gipuzkoara itzuliko gara, mundua hankaz gora jarri eta gure gizartea hausnarketara gonbidatzeko", azaldu dute antolatzaileek.

Erronkaren bidez lortutako kilometroekin, emakumeen ahalduntzea sustatzen duten hiru erakunde lagunduko direla iragarri dute. Erakunde horiek zeintzuk izango diren, ordea, hil honen erdialdean jakinaraziko dute.

Aipatu ekimenean parte hartu nahi dutenek badute aukera, izen-ematea zabalik baitago. Horretarako, Kinendu aplikazioa deskargatu eta erronkan izena eman behar da. Momentu horretatik aurrera, norberak bere mugimendua erregistratu ahal izango du. Urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra batuko dira kilometroak: "Kilometroak batzeko modu asko daude: oinez, korrika, dantzan, igerian, pedalei eraginez, bakarka edo taldean, kiroldegietan, kalean ala naturan, mugimendu orok batzen du", gehitu dute sustatzaileek.

Hainbat datu ere ezagutarazi dituzte. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, gomendagarria da astean, gutxienez, jarduera fisikoa 150-300 minutuz egitea. EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikertzaileek Gipuzkoako 18-64 urte arteko emakumeen aisialdiko jarduera fisikoa eta kirol ohiturak aztertzeko ikerketa egin dute. Azterketa hori garatu ahal izateko, Gipuzkoako ia 4.000 emakumeren erantzunak hartu dituzte kontuan. Datu horien arabera, Gipuzkoako emakumeen 3tik 1 ez da aktiboa; astean 120 minutu baino gutxiagoz egiten dute kirola: "Inaktibotzat hartzen dute euren burua eta hori sinesten dute. Gehiengoa herri txikietan bizi da eta 30 eta 49 urte artean ditu. Asko ama dira".

Ez-aktibo izatearen atzean egon daitezkeen "oztopo eta mugak" komunak direla ikusi dute. Horien artean aipatu dituzte honakoak: estereotipoak, fisiko zein estetikoak, beldurrak, kirol gaitasun eta intentsitateari lotutako sinesmenak, denbora, interes, ezagutza eta bidelagun falta. Horren aurrean, emakume oro mugimenduarekin bat egitera bultzatu nahi dute.

Zinegotzi kargua utzi du Joxe Pikabea Bereziartuak

Urtarrileko ohiko udalbatzarra baliatu du Pikabeak dimisioa emateko. Sandra Barkaiztegi Navarrok hartuko du lekukoa

Txintxarri

Legegintzaldi erdia eginda utzi du Joxe Pikabea Bereziartuak zinegotzi kargua. Astelehenean, hilaren 10ean, eman zuen erabakiaren berri EH Bilduk, prentsaurrean. Udaletik kanpo, baina "herria egiten" jarraituko duela nabarmendu zuen Asier Gorostegi Aliri alderdiko ordezkariak, eta aipatu Sandra Barkaiztegi Navarrok hartuko duela Pikabearen lekukoa. Esker hitzak zuzendu zizkien biei EH Bilduren izenean: "Eskerrak eman nahi dizkiegu biei, lehenago etorri ziren denei bezalaxe, zinegotzi izateko emandako pausoagatik. Ez da erronka makala plaza publikoan politika egiten aritzea". Adierazi du "gogoz" jarraituko dutela lanean legegintzaldiaren bigarren erdian ere: "Badugu iparrorratza, badugu taldea eta badugu lanerako gogoa".

Hala, atzoko, urtarrilak 13, ohiko udalbatzarrean eman zuen Pikabeak dimisioa.

Joxe Pikabea ezkerrean, behean, eta Sandra Barkaiztegi eskuinean, behean. TXINTXARRI

DBHko IKASLEEN ONARPENA | 2022-2023

Epea: urtarrilaren 17tik 28ra

www.oriarte.eus

ORIARTE BHI

Institutu bat, bi eraikin

1. eta 2. DBH

Landaberri eraikina

Pintore kalea, 2
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943-89 94 94
info@oriarte.eus

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera:
9:00-14:30

3. eta 4. DBH

Larrekoetxe eraikina

Buenos Aires aldapa, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943-89 94 92
info@oriarte.eus

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera:
9:00-14:30

- 12-18 urte bitarteko hezkuntza-eskaintza D ereduan.
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituena.
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP), Pedagogo Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldeak (AC), Bidelaguna (eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPI) eta Orientatzaileak.
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa.
- Atzerriko bigarren hizkuntza aukeran.
- Jangela zerbitzua.

KALITATEA HEZKUNTZAN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

bihe+

baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

"Birziklapenaren kultura" sustatzeko totemak

Herritarrak birziklapenaren garrantziaz kontzientziatzeko, bina "koadriptiko" jarri dituzte. Okendo eta Jaizkibel plazetan eta Kale Nagusia 32. zenbakian daude ikusgai horiek, eta bertan egongo dira kanpainak iraun bitartean; otsailaren 1era arte

Txintxarri

Lasarteoriatarrak ingurumenaz eta birziklapenaren garrantziaz kontzientziatzeko kanpaina abiatu dute San Marko Mankomunitateak, Ecoembesek eta Ecovidriok. *Birziklapenaren totemak* izena jarri diote egitasmoari. Mankomunitateko hamar udalerritan jarriko dute ikusgai, eta apirilaren 12ra arte iraungo du.

Herritarren arreta erakarri nahi dutelako prestatu dute aipatu kanpaina, eta ontzien bilketari buruzko informazio grafikoa eskainiko die lasarteoriatarrei: "Koadriptiko bat da, gaikako bilketa-lerro bakoitzean zer utzi behar den adierazten du, eta horietan ohiko errefusa diren zatikiak adierazten ditu". Gaika "gehiago eta hobeto" bildu behar dela azpimarratu dute antolatzaileek: "Plastikozko, metalezko eta brik motako ontziak eta beirazko, paperezko eta kartoizko ontziak behar bezala bereizteko behar den informazioa ematen dute".

Otsailaren 1era arte egongo da kanpaina ikusgai, Lasarte-Orian. TXINTXARRI

Informatu eta sentsibilizatu

Hondakinak eta ontziak jendearen artean behar bezala bereiztea sustatu nahi dute ekimenaren arduradunek. Horretarako, formatu berri horrekin (informazio-totemak) herritarrak gaikako bilketei buruz informatu eta "birziklapenaren kulturaz" sentsibilizatu nahi dituzte, bildutako materialen kantitatea eta kalitatea handitzeko. Ontzien tipologia desberdinen adibideak aurkituko dituzte bisitariek totem bakoitzean.

Egiturak bikoteka jarri dituzte kalean. Lasarte-Orian, zehazki, gaur (urtarrilak 11) jarri dituzte, eta otsailaren 1era bitarte hori eta berde koloreko bana egongo dira ikusgai, honako lekuetan: Okendo plazan, Kale Nagusia 32. zenbakian eta Jaizkibel enparantzan. Leku horiek aukeratu dituzte bertan pertsonen joan-etorriak ugariak izaten direlako, horrelako kanpainak eremu horietan tokian tokiko eguneroko jardueran oztoporik eragin gabe egokiro integratzen direlako, kamioiarekin sartu eta karga eta deskargak egiteko irisgarritasun ona dutelako eta espazioen erabilgarritasuna aurreikusi delako.

Diru laguntza lerro bat, enpresa txikiak sortu dituztenentzat

40.000 euro bideratu ditu, merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonaleko enpresa txikiak sortzera

Txintxarri

Lasarte-Oriako hirugarren sektorea indartu asmoz, merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonalekin lotutako enpresa txikiak sortzeko dirulaguntza lerroa martxan du udalak. 2021ean 40.000 euro banatu ditu 15 enpresen artean, 2020an baino 25.000 euro gehiago. 2020ko azaroaren 1etik 2021ko urriaren 31ra arte herrian merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen prestazioko enpresa berria sortu duten pertsona fisiko nahiz juridikoek eskatu ahal izan dute laguntza ekonomikoa, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Hamabost proiektuetatik hamar emakumeek bultzatu dituzte eta emakume ekintzaileetako bat, gainera, iraupen luzeko langabea zen. Horrez gain, bost enpresa 30 urte edo gutxiagoko pertsonek sustatuak dira eta kasu batean, 55 urtetik gorako pertsona bat da laguntza eskatzailea.

NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

2022. urte osasuntsua

Atseden hartzeko egunak iritsi ziren abendu bukaeran. Kanpora joateko erabakia, pandemiak baldintzatu zuen. Leku lasai baten bila, ingurune naturaletara jotzeko hautua egin genuen. Itzuli eta lehen egunean omikron aldaera, ustez, etxera sartu zitzaigun. Azken asteetan izandako kutsatze kopuruaren gorakada ikusita, ez ginen harritu baina azken egunetan inorekin kontaktu esturik eduki ez izanak bai. Gabonetako elkartzeen ondoriotzat hartu genuen.

Momentu horretatik aurrera autoezagutzaren, automedikazioaren, autodiagnosiaren eta ezjakintasunaren eremuan mugitzen ibili gara etengabean.

Sintomekin usteak. Sintoma hauek bat egiten ote duten COVID-19arekin , besteren batean izandako hotzeria arruntenekin alderaketa, duela bi hilabete ere horrela pentsatu eta beti emaitza negatiboa izan dugula, garrantziarik ez ematea, eta abar. Azken finean, azken hilabeteetan guztioi burutik pasa izan zaizkigun zalantzen nahaspila horretan sartuta ginen.

Gerora, batzuen positiboak eta besteen negatiboak eta bakoitzarenaren zergatia eta batzuei bai eta besteei ez, horren alderaketa, zehazki gauza berdinak egin genituenean. Testen emaitzen ziurtasuna izan zen hurrengoa. Marratxoa agertzen da, ez da agertzen, zertxobait ikusten da. Autotest hauen eta hauek irakurtzen ditugun ezjakinon zalantzak.

Gero kontaktuak. Beno mendialdean egon gara eta bakarrik ibili garenez zalantzarik ez. Ez dugu kontaktu esturik atzera begirada honetan.

Egun batzuetara Osakidetzako froga. Ados, bagoaz gure positiboa ziurtatzera. Hiru egun eta ordu desberdinetan, ilaran PCRa; ez, orain antigenoak direla eta aurrera. Zuk niri eta nik zuri egitea bakarrik falta zitzaigun haurrekin. Lehenarekin norberak berea eta haurrarena ahal zen moduan.

Bigarrenarekin, zutik haurra besoetan negar batean, aulkirik ez esertzeko eta sudurrean barrura badoa makila, halamoduz, froga bukatutakoan ongi egin ote duzunaren sentsazioarekin irteten zarelarik, autotest bat beharrean, haurrarekin egin duzuna San Martin bueltan txerriekin egiten dutenaren antzekoa izan delakoan. Gainera, ongi egin ote duzunaren zalantza horrekin.

Egunak etxean, zazpigarren eguna iritsi eta zalantzak. Sintoma gehienak desagertuta, positiboak ziurtatuta, ateratzeko eguna iritsi da baina... Dakien inork garbi ez du ezer esaten eta guk dakigun gutxi hori, zortzigarren egunean ateratzearena, aplikatzekotan. Bagoaz badaezpada testak egitera. Gure logikak noski positibo izango garela esaten digu. Frogak egin eta 3tik 4k egoera berdinean jarraitzen dugu. Normala da bai, baina lanera joatea egokitzen da. Osakidetzako argibideak hamargarren aldiz irakurri eta kasuistika honentzat ez da ezer ageri. Anbulategira deitu eta horrela dela baieztatzen digute kasu hau ez dela agertzen azalpen orrian. Orain bai harridura. Egoera oso normaltzat jotzen baitugu zortzigarren egunean positibo izaten jarraitzea eta oporraldian egonda baja tramitatu ez genuenez, orain egin behar izatea pertsona askori emango zitzaion kasu bezela ikusten dugu.

Prozesu guzti honetan salba ditzakegunak, langileak eurak. Gu bezain galduta kasu askotan, kontraesanekin egunerokoan borrokan eta jendearen egonezin guztia kudeatu nahiean gure agintarien erabakien itsasoan ito beharrean, beti besteoi ez itotzeko txalekoak botatzen, tartean eurak egurrezko ohol baten gainean ikusten dituzularik, ur gainean mantentzeko lanak izaten ari diren bitartean.

Baliabideak behar ditugu berehalakoan, jada bi urte luzeetako aitzakiek ez dute balio. Erabil dezazue dirua mesedez lehentasun den eremura bideratzeko, arren.

Dozenaka herritarren pausoak, bidea egiteko

Pandemiaren eraginez, bigarren urtez, Euskal Herriko ehunka udalerritara eraman du Sare Herritarrak presoen eta iheslarien eskubideen aldeko mobilizazioa. Lasarte-Orian dozenaka herritar irten dira kalera 'Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean' lelopean

Txintxarri

Salbuespen legediaren amaiera aldarrikatzeko milaka herritarrek bat egin zuten Sare Herritarrak urtarrilaren 8rako deitutako mobilizazioekin. Manifestazio jendetsu bakarra egin beharrean, herriz herri egin dituzte aurten ere ekintzak. Lasarte-Orian, Okendo plazatik irten ziren dozenaka herritar, eta erdialdeko kaleak zeharkatu zituzten, abiapuntura bueltatu aurretik.

Gizarte eragileei eman nahi izan zieten garrantzia, hala, *Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean* leloa zuen pankarta eusteko ardura izan zutenak LAB sindikatuko Olatz Arozena eta ELA sindikatuko Maialen Aranburu, Pablo Barrio, Tomax Arruti, Rosa Ormazabal eta Oihan Agirretxe izan ziren.

Ikurriñak eta presoen etxeratzearen aldeko aldarriak izan ziren bidean, eta plazara bueltan, Ixiar Arteagak idatzi bateratua irakurri zuen. Eskerrak emanez hasi zen, mobilizazio honetan eta gainerakoetan izan direnei. "Elkarrekin urratsak emanez" aldaketa zantzuak lortu badira ere, gogorarazi zien bide beretik jarraitu behar dutela "espetxe politika berri bat" erdietsi arte; euskal presoek etxerako bidea garatzeko "oztopo eta muga nagusia" baita, "eskubideen urraketaren bermea" eta "sufrimendu iturri". Ondorioz, indarrean egonda, elkarbizitza "ezinezkoa" da eta etxeratze prozesua gauzatzeko eta espetxe politika aldatzeko, ezinbestekoa da kalera irtetea. "Jarrai dezagun pausoka, elkarbizitzarako, bakerako eta etxerako bidean. Elkarrekin, lortuko dugu".

Senideak beharrean, pankarta eraman zutenak gizarte eragileak izan ziren. TXINTXARRI

Oriako kapera aukeratu dute aurtengo errezitaldia egiteko. TXINTXARRI

Bizipenekin josita bidaia

Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatuta, XI. Errezitaldia egin zuten urtarrilaren 7an, Oriako kaperan. *Zubiak bizirik, beti aurrera begira* lelopean, kalea eta kartzela lotu zituzten musika, dantza eta irakurketen bidez.

Tren bidaia bat balitz bezala irudikatu zuten saioa. Xumelako kideek hasi zuten ikuskizuna, korutik abestuz bertako organoaren doinuak lagunduta. Ondoren, maletak eta poltsak eskuetan edo sorbaldetan zituztela iritsi ziren lehen partaideak, artean, Mixel Etxekopar musikari zuberotarra. Emanaldian zehar zenbait musika tresnarekin girotu zituen uneak eta irakurketak, baita kanta pare bat abestu ere.

"Barruan zaudetenentzat zer da kartzela?". Pablo Barriok Aitzol Iriondori eta Ibon Fernandez Iradiri egindako galderari erantzunak izan ziren haria. Poema itxura hartu zuten batzuek, gutunarena besteren batek. "Putzu beltza eta itxaronaldi luzea", Jabi Gallagaren hitzetan, "inoiz iristen ez den zerbaiten zain beti".

Bigarren geldialdi bat egin zuen trenak, eta bidaiari berriek kartzelara joan-etorriek eragindako sentipenak partekatu zituzten. Bisitak, itzulerak, agurrak. Zenbait lekukotza josten joan ziren maletetatik ateratako orri zatiak irakurrita. Abestiak eta dantza ere izan ziren azken geltokira iritsi eta trenetik irten aurretik.

Lasarte-Oriakoentzat garraio zerbitzua!!

Udarregi IKASTOLA

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 17-28 (biak barne)

Ate irekiak
Urtarrilaren 15ean, 11:00etan HH eraikinean

50 urteko esperientzia

943-36 12 16
Gernika ibilbidea. USURBIL
www.udarregi.eus

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza integrala (0-16 urte bitarte).
- Euskalduna. Euskaldun konprometituak hazten ditugu.
- Irakaskuntza Eleanitza: ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa DBHn.
- Ikastola inklusiboa, guztion ikastola bultzatzen dugu: aniztasuna, garapen erritmo ezberdinak aintzat hartuz.
- Ikastola Berritzaileak: Berrikuntza didaktiko, metodologiko eta teknologiko etengabeak.
- KiVa Ikastola: Eskola Jazarpenaren (bullyinga) aurkako programa indarrean.
- Baso eskola; basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- Autobus zerbitzua: Lasarte, Zubieta, Santuenea eta Aginaga.
- Jangela: Bertan sukaldatutako herriko produktuak
- Zaintza zerbitzua. 8:00etatik 9:00etara eta iraila eta ekainean 14:30etik 16:30era.
- Zirimara aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak: Kirola, dantza, xake, antzerkia, robotika,...
- Beka sistema propioa: kuoten %100 bonifikatua.

Urtarrilean, inoiz baino kutsatze gehiago herrian

Koronabirusaren omikron aldaeraren ezaugarrietako bat da oso azkar hedatzen dela pertsonen artean. Nabari da hori Lasarte-Oriako datu epidemiologikoetan, urtarrileko aurreneko hamabi egunetan 1.121 kutsatze atzeman baitituzte gurean

Txintxarri

Lasarte-Orian, urte berriko aurreneko hamabi egunetan, 1.121 kutsatze detektatu dituzte; eguneko, batez beste, 93. Intzidentzia ez da inoiz horren altua izan gure herrian: 6.589,66 positibo 100.000 biztanleko. Beste marka bat ere hautsi dugu: hilaren 12an atzeman dituzte kasu gehien egun bakarrean, 129. Horrek zerikusi zuzena du, besteak beste, koronabirusaren omikron aldaera oso-oso kutsakorra izatearekin. Barietate hori nagusitu zenetik, oso nabarmen igo dira kutsatzeak Lasarte-Orian. Hona hemen datu batzuk, alderaketa egiteko: iazko urrian 23 kasu zenbatu zituzten; azaroan, 123; abenduan, 942; eta urtarrileko aurreneko hamabi egunetan, esan bezala, 1.121. Datu ofizialen arabera, gure herrian bizi diren 19.045 biztanleen ia laurdena kutsatu du koronabirusak urtarrilaren 12ra arte: 4.396 pertsona, herriko bizilagunen %23,1. Ia gehienak sendatu dira edo horretarako bidean dira, baina, tamalez, 24 herritar hil egin dira.

Beterri-Buruntza mankomunitatea osatzen duten udalerrietan ere oldartuta dabil koronabirusa. Urtarrilaren 12an 1.159 positibo detektatu dituzte sei udalerrietan: 347 Lasarte-Orian, 292 Hernanin, 250 Andoainen, 104 Astigarragan, 86 Usurbilen eta 80 Urnietan. Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak astean bitan gaurkotzen dituzte datuak, astelehen eta ostegunetan.

Antigeno testek, 2,94 euro

Espainiako Gobernuak iragarri berri du farmaziek saltzen dituzten antigeno testek ezingo dutela 2,94 euro baino gehiago balio Estatu osoan. Neurri hori hilaren 15ean sartuko da indarrean, larunbatez. Saltoki handiek ezingo dituzte proba horiek saldu, gobernuak hala erabakita. Azken asteetan, Eguberrietan, batez ere, asko igo zen autodiagnostiko froga horien eskaera, eta prezioa ere bai.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak prestatu ditu ULEk

Usurbilgo Lanbide Eskolak jakinarazi du formakuntza saioak doakoak izango direla; arratsaldez egingo dituzte

Txintxarri

Usurbilgo Lanbide Eskolak (ULE) ikastaro ugari egiteko aukera emango die eskualdeko langileei zein langabetuei. Jakinarazi du Lanbidek %100ean finantzatuko dituela eta, beraz, doan direla. "Ikastetxean bertan ariko dira ikasleak, arratsaldeetan".

Ikastaroei buruzko informazioa ULEren webgunean eskura daiteke, *Prestakuntza iraunkorra* izeneko atalean. Hauxe da esteka: *http://www.lhusurbil.com/web/eu_langileentzako_ikastaroak.aspx*. Horrez gain, 943-36 46 00 telefono zenbakira deitu edo *cursos@lhusurbil.eus* helbide elektronikora idatz dezakete interesa dutenek.

ULEk zazpi multzotan banatu ditu 2022rako prestatu dituen ikastaroak: Administrazioa eta kudeaketa, Elektrizitatea, Energia eta ura, Fabrikazio mekanikoa, Formakuntza osagarria, Instalazioa eta mantentze lanak eta Ostalaritza. Antolatzaileak aditzera eman duenez, talde horietako bakoitzean makina bat kurtsoren artean aukera dezakete interesa duten ikasleek.

Ikasle batzuk, lanean. USURBILGO L.E.

Gabonetako ekitaldi ugari, 2021a agurtzeko

2021eko Eguberriei behar bezalako ongietorria emateko jarduera ugaritan parte hartu ahal izan dute lasarteoriatarrek iragan abenduan. Jaiotzak prestatu, Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoei harrera egin, eta beste hainbat ekitalditan parte hartu dute

Felix Garitanok bedeinkatu zuen Biyak Bat egoitzako jaiotza. TXINTXARRI

Harrera beroa egin zieten etxeko txikiek Mari Domingi eta Olentzerori. TXINTXARRI

Danok Kideko jaiotzen lehiaketako hainbat saritu, elkarteko ordezkariekin. TXINTXARRI

Txintxarri

Gabonetako jardueretan murgilduta agurtu zuten lasarteoriatarrek 2021. urtea. Jai egun horiek ospatzeko, ordea, aurrez egin beharreko lanak izaten dira, eta horietan ere trebetasun handia erakutsi dute herritarrek. Biyak Bat egoitzako hainbat bazkidek, esaterako, jaiotza txukun bat prestatu zuten egoitza apaindu eta Eguberriei ongietorria emateko. Hala, abenduaren 21erako txukun-txukun jarri zuten eta egin horretan bertan bedeinkatu zuten. Felix Garitano apaiza arduratu zen horretaz. Gabonetako apaingarriari beharrean, horren egileei egin zien aitortza Garitanok. Hitzartzea eta bedeinkazioa amaituta, kanturako tartea zabaldu zuten. Doinu ezagunak abestu zituen Biyak Bat egoitzako koruak.

Egun batzuk geroago desiratutako bisita jaso zuten lasarteoriatarrek. Mari Domingi eta Olentzero etorri ziren abenduaren 24an Lasarte-Oriara. Menditik jaitsi, eta urtero bezala herritarrekin egon eta gauean etxeak opariz betetzera etorri ziren. Auzo ezberdinetan barrena ibili ziren, eta horren ostean, etxeko txikienen harrera beroa ere jaso zuten kultur etxean. Porrotxek gidatuta, ikuskizun eder batez gozatu zuten.

Lehiaketa eta sari banaketa

Danok Kide guraso elkarteko kideak eskulan artean aritu dira 2021ean ere. Urtero moduan, jaiotzen lehiaketa antolatu dute; XVIII.a.

2021ekoa aurreko urtetakoekin alderatuta zertxobait ezberdina izan bazen ere, sari banaketa egin zuen abenduaren 30ean, ostegunarekin. Senideek lagunduta iritsi ziren parte hartzaileak guraso elkartera, baina horietako zenbaitek kanpoan itxaron behar izan zuten. Koronabirusaren ondorioz, sarituek soilik izan zuten egoitzara sartu eta egitasmoan parte hartzeko aukera. Guztira, hemezortzi jaiotza aurkeztu zituzten lehiaketara eta Eva Lizarraga eta Pablo Alzola izan ziren epaileak.

Gabonetan musikak ere berebiziko garrantzia hartzen du, eta 2021a agurtzeko emanaldi berezi batez gozatu ahal izan zuten ikus-entzuleek. Black Pearls of Gospel taldeak kontzertua eman zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean eta gospel estiloaren doinu alai eta indartsuetan murgildu ziren herritarrak.

Eta urte berriari ongietorria emateko lehen hitzordua Errege Magoen bisita izan zen. Koronabirusa tarteko, ez zituzten herriko kaleak zeharkatu urtarrilaren 5ean, jende pilaketak saiheste aldera ekitaldi hori bertan behera uztea erabaki baitzuen udalak, Megabarekin adostuta. Melchor, Gaspar eta Baltasar Manuel Lekuonan izan ziren; bertan jaso zituzten haurren eskutitzak eta harrera beroa. Megaba elkarteak antolatuta, 16:30etik 20:00etara joan ziren etxeko txikienak, asko eta asko gurasoek lagunduta. Eskatutako oparien zerrenda postontzietan sartu, eta pajeen eskuetatik goxokiak jaso zituzten.

Elkartasunean ere bat egin zuten herritarrek. PSE-EEren eta Gurutze Gorriaren deialdiei erantzunez, jostailuak bildu eta egoera zaurgarrian bizi direnen artean banatu zituzten.

Gurutze Gorriak jostailuak banatu zizkien egoera zaugarrian daudenel. G. G

Haur bat Gasparri eskutitza ematen. TXINTXARRI

Black Pearls of Gospel taldearen kontzertuko une bat. TXINTXARRI

Hau da gurutzea zegoen guneak gaur egun duen itxura. Ernaik abenduaren 18an bota zuen sinbolo frankista hori. TXINTXARRI

Buruntzako gurutzea eraitsi izana hizpide izan dute

Lasarte-Oriako zenbait eragile eta alderdik Buruntzaldeko Ernairen ekintzari buruzko iritzia eman dute azken asteetan

Txintxarri

Kolpistek 1939. urteko abuztuan altxa zuten gurutzea Buruntza mendiko tontorrean, 1936an Errepublikaren aurka hasitako altxamendu militarra irabazi ostean, gatazka horretan haien bandoan zendutakoak omentzeko. 82 urte eta gero, iazko abendu erdialdean, hura eraitsi zuen Ernai eragile politikoak, "herri honek jasandako zapalkuntza baten aldarria eta inposizioaren isla" ezabatzeko asmoz. "Garrantzitsua iruditzen zaigu ikur faxista horiei dagokien esanahia ematea eta ezabatzea, zapalkuntzarik gabeko herri baten alde. Ikusten dugu gaur egun zilegi dela faxismoari gorazarre egitea, Buruntzan bezalaxe, Euskal Herri osoan hainbat ikur frankista zutik daudelako oraindik".

Ekintza horren harira, Lasarte-Oriako zenbait eragile eta alderdik iritzia eman dute azken asteetan. Esate baterako, 1936ko altxamendu militarrean eta ondorengo urteetan gure herrian gertatu zena berreskuratu eta azaleratzeko lanean ari den Islada Ezkutatuak taldeak. Gutuna bidali dute TXINTXARRI-ko erredakziora.Gogoratu dute kolpistek 1936ko abuztuaren 30ean inbaditu zutela Oria bailara. "Gehienak nafar erreketeak ziren; San Roke baseliza menderatu ostean, Buruntza mendiaren lehen lepoa konkistatu zuten, Andoaindik gertu zegoena; eta 24 ordu gehiago behar izan zituzten gainerakoa kontrolatzeko, Azkorteko ermita zaharreraino".

Gurutzearen helburua "erregimen hori sortzen lagundu zutenak gorestea" zen, taldearen aburuz. "Askori, erraz ahazten zaie zergatia: jatorria alde batera utzita, sinbolo bihurtu dela diote". Horren aurrean, abenduaren 26ko 52/2007 Memoriaren Legea oinarri hartuta, kritikatu du "sinbolo hori kentzeko eskumena duen administrazioak" ez duela altxamendu militarra eta diktaduraren errepresioa gogoratzen dituen gurutze hori kentzeko urratsik egin. "Gure ustez, sinboloak zenbateko iraupena izan duen ikusita, kanpaina pedagogiko bat egin behar zen haren jatorriaren eta esanahiaren ezagutza bere osotasunean zabaltzeko". Hori egin izan balitz, ez legoke aukerarik "inguruko biztanleen ezjakintasunak, denboraren joanak edo gogoeta estetikoek zein erlijiosoek baldintzatutako interpretazioak egiteko". Islada Ezkutatuakeko kideen iritziz, "frankismoaren sinbolo garbi horiek" aspaldi desagertu behar ziren, eta horretarako ardura administrazio publikoek dute, ez beste inork. "Inork ez luke ahaztu behar arerio komuna frankismoa dela, bere sinbologia eta bere kontakizuna".

Adierazpen bateratua

Lasarte-Oriako EAJ-PNV, Elkarrekin Lasarte-Oria Puede eta PSE-EEk adierazpen bateratua argitaratu dute. "Jatorri frankista izan arren, eskualdean bizi direnentzat ikur esanguratsua bilakatu da; gertaera errespetu falta izan da gaur egun gurutzeari beste esanahi bat eman dioten pertsonekiko. Gure ustez, bere garaian faxistek eraiki arren, lasarteoriatarrek onartu egin dute monumentua, esanahi berria emanez, eta kolpistek haien garaipena gogoratzeko asmotik aldenduz". Komunikatua idatzi dutenen aburuz, Ernaik gurutze hori "alde bakarreko erabaki baten ondoren" eraitsi izana "errespetu falta" da. "Andoaingo Udalak monumentu horri beste esanahi bat eman ahal zion, Errepublikaren eta giza eskubideen erasotzaile faxistek nahi zutenaren guztiz aurkakoa, hain zuzen".

Lasarte-Oriako PPren ordezkari Alejandro Saenzen arabera, Ernairen aurkako akusazio partikular gisa aurkeztu beharko lirateke Andoain, Lasarte-Oria eta Urnietako udalak, "ekintza bortitz eta demokraziaren aurkako bat gaitzesteko". Bozeramailearen irudiko, gurutzeak "identitatea" ematen zion Buruntzari, eta "mendizaleen elkargune ere bazen".

Udal ordezkariekin batera inauguratu dute erakusketa Zurmailu elkarteko kideek. TXINTXARRI

Sekulako artelanak egin dituzte erakusketarako; adibidez, ispilu bat. TXINTXARRI

Egurraren artisauek erakusketa ondu dute

Zurmailu zurlanketa elkarteko lagunek erakusketa ireki dute Antonio Mercero gunean; urtean zehar egurrarekin egindako 60 lan inguru erakutsiko dituzte hilaren 23ra arte. Kideetako batekin hitz egin du TXINTXARRI-k, Manuel Yeregirekin, ekitaldiaz eta elkarteaz gehiago jakiteko

Eguzkilore eder hau da Manuel Yeregik egin duen lanetako bat. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Antonio Mercero aretoko eskailerak igo eta berehala, hainbat zentzumen jarriko zaizkie martxan Zurmailuren erakusketaz gozatzera joaten diren herritarrei: batetik, ikusmena, egurrez egindako 60 lan eder baino gehiago izango dituztelako begien aurrean; eta, bestetik, usaimena, zenbait zuhaitzetatik ateratako zur naturala erabili dutelako zurlanketa elkarteko kide diren artisauek. Maskara derrigorrez jantzita eraman behar izan duten arren, protagonistei atzematen zitzaien irribarre zabala, hainbat hilabetez egindakoa erakusteko eguna iritsi denaren satisfazioak eraginda.

Erakusketa urtarrilaren 23ra arte egongo da zabalik, igandez, egun hori barne. Astegunetan bertaratu nahi dutenek 18:00etatik 20:00etara izango dute aukera; asteburuetan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara. Sarrera doakoa da.

Zaletasun "goxoa"

Zurmailuko kideetako bat da Manuel Yeregi lasarteoriatarra, lehendakari ere izandakoa, berriki, bi urtez. Harengana jo du TXINTXARRI-k elkartearen jardunari eta zura lantzeari buruz gehiago jakiteko. Zabaleta auzoko Larre tabernan hartu du kazetaria: pazientziaz eta pozarren erakutsi dizkio azken 7-8 urteetan egindako lanak. Pablo Picasso margolari ezagunaren *Guernica* koadroaren moldaketa ikusgarria da horietako bat, astigarraren egurrarekin egina: Antonio Merceroko erakusketara eraman duen lanetako bat da. Ondoren, Larreko jangela zeneko atea ireki, eta lan ugari erakutsi ditu: Txirrita eta Bilintx bertsolarien erretratuak, intxaurrondoarekin eginak –zuhaitz horren egurrak kolore ilunagoa duela azaldu du Yeregik; pagoa, haritza eta astigarra ere erabili izan ditu, besteak beste–; eguzkilore eder bat; eta baita sutondo bat ere, herritarren lan kuttunenetako bat. "200 bat ordutan egin nuen lan hori; halakoak inori kobratzerik ez dago, eta zenbait gertukoei oparitzen dizkiet".

Duela 7-8 urte ekin zion Yeregik zura lantzeari, erretiroa hartu zuenean. "Burdinarekin lan egin dut beti, eta egurra goxoagoa da". Alabaren etxeko obretan laguntzen eta Larre taberna kudeatzen ari denez, denbora gehiegirik ez du egurra lantzeko, baina astean pare bat orduz behintzat aritzen da. Horrez gain, astean behin Zurmailuko gainerako kideekin elkartzen da udalak Kale Nagusian utzitako lokalean, eta Jon Ormazabal maisu villabonatarraren jarraibideak entzuten ditu, "10-12 bat minutuz". Azpimarratu du "oso gustura" aritzen direla maisuarekin, baina hark ezin duela denbora gehiagoz jardun ikasle bakoitzarekin, astean sei orduko saio bat egiten dutelako eta hogei bat pertsona elkartzen direlako. "Herritar batzuek sartu nahi dute elkartean, baina ezetz esan diegu oraingoz, irakaslearekin ezin dugulako are denbora gutxiago igaro bakoitzak".

Horrez gain, azkenaldian arazoak izan dituzte lokalarekin, teilatua ez dagoelako egoera onean eta itoginak izan dituztelako, euriteak direla kausa. Udalarekin harremanetan daude, eta tokiz aldatzea espero dute.

Omenaldi beroa jaso dute hiru pailazoek. AEK-KORRIKA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots omendu ditu 22. Korrikak

Hiru pailazoek aintzatespena jaso dute emanaldiz emanaldi daramatzaten 34 urteetan euskara bidelagun izateagatik

Txintxarri

Martxoaren 31tik apirilaren 10era Euskal Herri osoan zehar euskararen alde korrika egingo dute milaka lagunek. 22. Korrika izango da, eta antolatzaileak hasi dira motorrak berotzen. AEK-k Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omendu ditu berriki, 34 urtetako ibilbide arrakastatsuagatik –1987ko abenduaren 22an egin zuten lehen ikuskizuna, Lasarte-Orian– eta hasiera-hasieratik euskara han eta hemen zabaltzeagatik. Tolosan egin diete aitortza, Gure Zirkuaren denboraldiko azken emanaldian. Pailazoek parte hartu dute horretan, eta *Kuikui* lan berriaren lagin bat eman. Hiru protagonistak ez ezik, laguntzaile eta kolaboratzaile ugari igo dira taulara.

Korrikaren koordinatzaile Asier Amondok azpimarratu du pailazoek "zuzeneko eragina" izan dutela haur eta guraso askok euskararen aldeko hautua egin dezaten.

Herritarrak, Euskadiko Txapelketako podiumean

Pista estaliko Euskadiko Proba Konbinatuen eta Master Mailako Txapelketak jokatu dira asteburuan Donostiako Antonio Elortza belodromoan. Naroa Furundarena eta Jose Ramon Latorre herritarrak podiumean izan dira

Txintxarri

Pista estaliko lehiaketen denboraldia hasi da herriko atletentzat. Urtarrilaren 8an eta 9an, Euskadiko Proba Konbinatuen eta Master Mailako txapelketak jokatu dira eta Lasarte-Oriak hiru ordezkari izan ditu. Proba konbinatuetan Ostadar Atletismo saileko bi kidek, Naroa Furundarenak eta Aiala Ramosek parte hartu dute; biek pentatloia egin dute. Master mailan, berriz, Atletico Renteria taldeko kide den Jose Ramon Latorre 60 zein 200 metroko lasterketetan lehiatu da.

Furundarenak eta Latorrek podiumera igotzea lortu dute lehen txapelketa horretan. Renteria Atletico taldeko kidea gainera, bitan igo zen. 200 metroko lasterketako txapeldun izan zen, probako bigarren seriean 24,35 denbora egin ostean, eta 60 m. lasterketan Orkatz Beitia (7,20) bakarrik helmugaratu zen bere aurretik. Latorrek 7,51 egin zuen.

Naroa Furundarena, Euskadiko Proba Konbinatuen podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Bost proba

Ostadar Atletismoko Furundarena, berriz, bost probatan lehiatu zen eta guztira 2.753 puntu lortu zituen. Puntuazio horri esker, absolutu mailako lehen postua eskuratu arren, Euskadiko Txapelketako sailkapen orokorrean zilarrezko domina eskuratu zuen; 20 urtez azpiko lehiakide Ane Loyo gasteiztarrak eraman zuen txapela 2.896 punturekin.

Lasarteoriatarrak lehen postua eskuratu zuen 60 metro hesi proban (10,10) eta luzera-jauzian (5,53 m.); altuera proban, 1,36 metroko jauziarekin berdinketa lortu zuen eta 4 kiloko pisu jaurtiketa (8,95 m.) eta 800 metro(2.45,34) lasterketan bigarren izan zen.

Oscar Goikoetxea prestatzaileak azaldu duenez, "ez zuen egunik onena izan hesi lasterketan eta altuera probetan. Hala ere, podiumean izan da berriro eta hori poztekoa da".

16 urtez azpiko mailan, berriz, Aiala Ramosek 2.202 puntu batu zituen eta Euskadiko seigarren izan zen.

Talde urdin-beltzeko atleta gazteak 60 metro hesietan 10,76 marka egin zuen; altuera proban, 1,36 metroko langa igaro zuen; 7,72 metrora jaurti zuen 3 kiloko pisua; luzera-jauzian 4,15 metrotara iritsi zen eta 600 metroko lasterketan 2.09,56 marka egin zuen helmugan.

Proba libreak

Gainerako Ostadar SKTko atletek Gipuzkoako Federazioak antolatutako proba libreetan parte hartu dute abenduko azken asteetan eta urtarrileko lehen asteburuan.

Talde urdin-beltzeko kirolariek lortutako marken artean nabarmentzekoak dira Maider Rekondo disko-jaurtiketa proban lortutako 40,14 metroko marka; Alex Alkainek (7,51) eta Maider Abetek (8,33) 60 metro lasterketan egindako denborak; jauzi hirukoitzean, Oinatz Almagrok osatutako 9,96 metroko jauzia eta Nahia Surutusak 3 kiloko pisuarekin egindako 8,53 metroko jaurtiketa.

Urtarrilaren 15ean, herriko atletek aukera berri bat izango dute euren markak ontzeko. Goizez eta arratsaldez Antonio Elortza belodromoan lehiatuko dira proba libreetako D eta E saioetan.

Muguerza krosa

Pista alde batera utzi eta lokatzetan ere lehiatu dira herritarrak urtarrilaren 9an. Zumeatarra taldeko kide diren Aimar Sukunzak eta Unai G. Somovillak Elgoibarko 78. Juan Muguerza Nazioarteko krosean parte hartu zuten 20 urtez azpiko Mamo Wolde sarian. Sukunza, gainera, Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen.

Proban 6.624 metroko ibilbidea egin behar izan zuten herritarrek. Sukunza izan zen bietan helmuga igarotzen lehena, 24.43; Somovillak, berriz, bi minutu gehiago behar izan zituen ibilbidea amaitzeko (26.55).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Tolosa CF - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Usabal, Tolosan.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA

Segura Goierri KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Alustiza, Seguran.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Orioko FT - Ostadar SKT
Larunbata. 17:30. Mendibeltz, Orion.

JUBENILEN 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT A - Hernani CD
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Amara Berri B - Ostadar SKT B -
Igandea. 13:00. Martutene, Donostian.

OHOREZKO KADETE MAILA

Antiguoko - Ostadar SKT
Igandea. 12:20. Berio, Donostian..

KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Texas Lasartearra CF - Burumendi FG
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA, KOPA

Usurbil FT B - Ostadar SKT B
Larunbata. 12:00. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT A - Arrupe Chaminade CD B
Igandea. 14:15. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Tolosa CF - Ostadar SKT
Larunbata. 12:15. Usabal, Tolosan.

INFANTILEN 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Urnieta KE
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Usurbil - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:15. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT B - Euskalduna SD
Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

ERRENDIMENDUKO ALEBINA

Ostadar SKT - Tolosa CF
Igandea. 16:00. Michelin kirol gunean.

HOBEKUNTZA ALEBINA

Texas Lasartearra CF - Sporting De Herrera
Igandea. 16:00.Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA

Euskalduna SD - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones
Larunbata. 15:00. Allurralde kirol., Andoainen

2. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Ingou Coinbroker Aloña
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki AF - Antigua Luberri KE
Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTILEN MAILA

Eguzki AF - Aloña Mendi KE A
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR 1. MAILA

Easo - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Bidebieta kirol., Donostian.

SENIOR 2. MAILA

Ostadar SKT -Easo Araxes
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 3. MAILA

Zalburdi Debasket - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Debako kiroldegian.

JUNIOR ERRENDIMENDU

Ostadar SKT - Oiarso SKT
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU

Innova Hortz Klinika ISB - Ostadar SKT
Larunbata. 09:00. Azpeitiko kiroldegian.

KADETE PARTAIDETZA

SaskiAxular - Ostadar SKT
Larunbata. 09:30. Axular Lizeoa, Donostian.

INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA

SaskiAxular Ulia - Ostadar SKT
Larunbata. 09:30. Axular Lizeoa, Donostian.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Bera Bera Zurrilla
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

MINI

Easo Mendiola 2010F - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. San Ignacio ik., Donostian.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Eibar RT - Gesalaga Okelan Zarautz RT
Igandea. 12:00. Unbe, Eibarren.

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Uribealdea RKE B
Larunbata. Asti, Zarautzen.

PILOTA

JUBENILAK 2. MAILA - BIKOTEKA

Gaztelupe - Intza KE
Ostirala. 18:30. Resti pilotalekua, Zaldibian.

KADETEAK 2. MAILA - BIKOTEKA

Intza KE - Aloña Mendi 1
Larunbata. 16:15 Michelin pilotalekua.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - Arizan Gallartaren Ahotsa
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL MAILA

Lizardi - Ostadar SKT
Larunbata. 14:30. Lizardi BHI, Zarautzen.

IGERIKETA

ALEBINEN LIGA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola adineko haurren inguruan hartuko duen erabakiaren zain, Buruntzaldea IKTko gaztetxoek Alebin Ligako 4. jardunaldia jokatuko dute.
Larunbata. 18:00. Hernaniko kiroldegian.

KZL

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola adineko haurren inguruan hartuko duen erabakiaren zain, Buruntzaldea IKTko benjaminek Kirol Zehaztasun Ligako 2. jardunadlia jokatuko dute.
Larunbata. 15:30. Hernaniko kiroldegian.

ATLETISMOA

PLP

Ostadar Atletismo saileko federatuek Parte-hartze libreko bi saio izango dituzte.
Larunbata. Antonio Elortza belodromoa, Donostian.

"Play-offa jokatzeko aukera asko dugu"

ALEX SALETA ATORRASAGASTI AVIRON BAYONNAIS TALDEKO JOKALARIA

20 urtez azpiko errugby XVeko Europako Txapelketa irabazi du Espainiako Selekzioarekin. Aviron Bayonnaiseko etorkizun taldean lan ederra egiten ari da

Txintxarri

Alex Saleta Atorrasagasti (Lasarte-Oria, 2001) errugbi jokalaria Beltzak RT taldean eman zituen bere lehen pausoak. 18 urterekin Zarautz Errugbi taldean jokatu zuen, Ohorezko Mailan, eta 2020. urtetik Baionako Aviron Bayonnais taldeko etorkizun taldearekin hasi zen lanean. Denboraldi ederra egiten ari da eta Lasarte-Oriako kirolari onenaren saria eman berri diote.

Zergatik erabaki zenuen Frantziara joatea?

Frantzian errugbia maila profesionalean jokatzen da. Munduan dauden jokalaririk onenak hemengo ligan ari dira lehian. Pixkanaka esperientzia hartu eta profesional mailara iristea da helburua.

Nola sortu zen Aviron Bayonnais taldera joateko aukera?

Avironek Espainiako selekzioan jokatzen nuelako ezagutzen ninduen. Itxialdian haiekin elkarrizketa bat eduki nuen eta apustua egin zuten. Bi urteko kontratua sinatu nuen *espoir* edo etorkizuneko taldean jokatzeko.

Lehen denboraldia ez zen erraza izan...

COVID-19a alde batera utzita, aurreko denboraldian lesio ugari izan nituen eta zaila izan zen jokatzea. Aurten hobeto nabil eta bi partida kenduta titularra izan naiz gainontzekoetan.

Taldea sailkapeneko lehen postuetan dago. Ligako play-offa duzue buruan?

Azken hiru partidetara arte sailkapeneko bigarren postuan izan gara. Hiru partida galdu ditugu jarraian eta bosgarren postura jaitsi gara. Baina lau puntutan hiru talde gaude.

Hala ere, aukera asko ditugu play-offean egoteko. Taldea ongi dago. Oraintxe min hartuta zeuden jokalari asko itzuli dira lanera.

Gainera, partida bakarra atzeratu behar izan dugu aurten.

Saleta, partida batean. AVIRON BAYONNAIS.

Entrenatzaileak eman zuen positibo. Beraz, zorionez, partida ia guztiak jokatu ditugu, arazorik gabe.

Zortea gure alde badago, lehen postuengatik borrokatzeko taldea dugu.

Horrez gain, 20 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketa jokatu eta garaikurra lortu zenuen. Nolako esperientzia izan zen?

Zaila izan zen. Jokatu ahala antolatzen ginen, partidaz partida. Ez genuen elkar ondo ezagutzen. Jokaldiak eta ondo prestatzeko norgehiagoken arteko entrenamenduak izan genituen bakarrik.

Pandemia dela eta, txapelketa prestatzeko aukera askorik ez zenuten izan, ezta?

Ez, ez dugu elkartzeko aukera askorik izan. Txapelketa aurretik irailean astebeteko topaketa egin genuen Valladoliden neurri guztiak jarraituta. Eta txapelketarako astebete falta zela elkartu ginen berriro. Egun pare bat entrenatu eta zuzenean Portugalera joan ginen, Coimbrara, lehiatzera.

Finalean etxeko taldea eta aurreko bi urteetako txapelduna izan zenuten aurrez aurre. Partida zaila izan zen?

Finala izan zen erasoan zein defentsan jokatu genuen partidarik hoberena, ziurrenik. Baina zorte txarra izan genuen azken bost minutuetara arte.

Markagailuan puntu bateko tartea genuen bakarrik bigarren zatian eta zortez entsegua egitea lortu genuen. Baina ordura arte partida zaila izan zen, txapelketako beste guztien antzera.

Gainera, harmailak euren zaleez beteta zeuden; guk familiako kide eta lagun batzuk eraman genituen... Eta portuges asko animatzen zuten; harmaila bero zegoen. Beraz, norgehiagoka zaila izan zen, zentzu guztietan.

Garaipeneko entsegua lortzeko azken pasea eman zenuen...

Bai, horrela da. Baina beno, ez diot garrantzia handirik ematen horri.

Aurten beste Europako Txapelketa bat jokatuko du 20 urtez azpiko taldeak. Lehiatzea espero duzu?

Bai, horrela da. Baina nik, adinarengatik, absolutu mailara egingo dut jauzia.Kategoria horretan nire postuan maila profesionalean lehian ari diren jokalari oso onak daude. Beraz, oraintxe bertan ez dut hori buruan.

2021. urtean egindako lanarengatik, Lasarte-Oriako Kirolari onenaren saria jaso zenuen abenduan egin zen Lasarte-Oriako Kirolaren Galan. Zer sentitu zenuen?

Asko poztu nintzen saritua izan nintzela jakitean. Gainera, ekitaldia oso berezia izan zen niretzat. Lehen aldia zen gala Manuel Lekuona Kultur Etxean egiten zena eta lagunak eta senideak egon ahal izan ziren bertan.

Horrez gain, Lasarte-Oriako errugbiarentzat sari hau lortu izana oso garrantzitsua dela uste dut.

Denboraldi amaieran Aviron Bayonnais taldearekin duzun bi urteko kontratua amaituko da. Baionan jarraitzeko asmoa duzu?

Ezin daiteke inoiz jakin. Nik Baionan jarraitu nahi dut, gustura nago eta klubarekin harreman onak ditut. Oraindik goiz da zer edo zer jakiteko.

Buruntzaldea IKTko alebinak maila onean lehiatu dira

Neurri berriak eta igerilari ugari konfinatuta egonda ere, Alebinen Ligako hirugarren jardunaldiak aurrera egin du

Txintxarri

Eguraldia eta pandemia medio, Alebinen Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko ez zela zirudien arren, proba hilaren 8an jokatu zen Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan.

Abenduaren 11n lehiatzekoa zen lehenik jardunaldia. Baina saioa bertan behera geratu zen orduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eguraldia dela eta alerta laranja ezarri baitzuen. Urtarrilaren 4an, berriz, Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren aurkako Hezkuntzako protokolo berria aurkeztu zuen eta bertan Eskola Kiroleko lehiaketak bertan behera geratuko zirela adierazi zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, eskola-lizentzia duten kluben Eskola Kiroleko jarduera baimendu zuen hilaren 8-9ko asteburuan.

Horri esker, Buruntzaldea IKTk jardunaldia antolatu ahal izan zuen, baina edukiera murrizketa berriek eta parte hartzaileen baja kopuru handiak markatutako jardunaldia izan zen, batez ere igerilarien konfinamenduen ondorioz.



Alebin Ligako 3. jardunaldia lehiatu zen Maialen Chourraut igerilekuan. TXINTXARRI

Gaztetxoek 200 m. bizkar eta 100 m. tximeleta probak lehiatu zituzten eta saiori amaiera emateko mutilak 4x100 m. estilo libreko erreleboan aritu ziren.

Buruntzaldea IKTko zazpi gazte lehiatu ziren –lau mutil eta hiru neska– eta euren probetako lehen postuetan sailkatu ziren egindako lana ildo onetik doala erakutsiz.

Borja Apeztegiak taldeko prestatzaileak adierazi duenez, "bizkar estiloko 200 metroak bezalako proba zail baten aurrean, batere beldurrik gabe eta ausardiaz egin zuten igeri".

Tximeleta estiloko 100 metroko proban denek erraztasun handiz igeri egin zutela ere nabarmendu du: "Hasiera batean nolabaiteko errespetua eman ohi duen proba beldurrik gabe, erasoz eta teknika egoki baten bidez aurrera ateratzen dakitela erakutsi zuten".

4x100 m. erreleboan parte hartu zuten mutilen lana ere azpimarratu du: "Aurretik ahalegin handiko bi proba egin zituztela jakinda, aitortu behar dut benetan lan ona egin zutela".

Jardunaldia zintzilik

Hurrengo jardunaldia hilaren 14an izango dute alebinek Hernanin. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak Eskola Kirolaren inguruan hartu behar duen erabakiaren zain daude kirol taldeak. Eginez gero, igerilariek 400 m. libre eta 100 m. bizkar probak lehiatuko dituzte. Benjaminen Kirol Zehaztasun Ligako jardunaldia ere erabakiaren menpe dago.

Hitzordu garrantzitsu eta zailei aurre eginez

Ostadar Saskibaloia ataleko Junior Errendimendu Euskal Ligako taldeak igoera fasea jokatu du. Final-erdian Zarautz ZKEk garaipena eskuratu eta lehiatik kanpo geratu da. Kadete Partaidetza taldeak, berriz, hitzordu bikoitza izan du sailkapeneko lehen postuko bi talderen aurka

Txintxarri

Ostadar Saskibaloi taldeko Junior Errendimendu taldeak Euskal Ligarako igoera fasea jokatu zuen urtarrilaren 8an eta 9an, Zarautzen. Urdin-beltzez gain, beste hiru taldek jokatu zuten igoera: Goierri UZ Baleike, Zarautz ZKE eta BKL Esparru. Lasarte-Oriako taldeak ezin izan zuen final-erdia gainditu; Zarautz ZKE izan zen bere arerio, gerora finala irabazi zuen taldea.

Lehen laurdenak baldintzatu zuen partida guztia. Hiruko jaurtiketei esker, markagailuan 8-0 aurre hartu zuen Zarautz ZKEk. Baina Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak ez zuen amore eman eta gerturatzea lortu zuen 8-6. Zarautzek, baina, ez zuen berriro akatsik egingo eta 23-9 amaitu zen lehen laurdena.

Bigarren laurdenean ongi eutsi zien talde urdin-beltzak Zarautzen erasoei eta aurkariak zortzi puntu besterik ez zituen egin. Ostadarrek, ordea, aukerak ongi baliatu zituen hamabost puntu lortu eta laurdena irabazteko. Hala ere, lehen erdiaren amaieran bost puntuko aldea zegoen markagailuan.

Atsedenaldi osteko lehen minutuetan laurden borrokatua izango zela bazirudien ere, Zarautzek bere erritmoa ezarri, eta zortzi puntu jarraian egin zituen. Ostadarrek azken minutuetan ederki erantzun zuen, eta jaurtiketa libreen bidez, aldea txikitzea lortu zuen.

Amaierakoan ere dinamika bera mantendu zuten. Marrahiren taldea, ordea, ez zen fin ibili jaurtiketa puntutik eta hiruko batekin Zarautzek finalerako txartela lortu zuen, 58-40.

Kadete partaidetza taldeko jokalariak erasoan. TXINTXARRI

Bi partida

Maialen Chourraut kiroldegian, berriz, 2. senior taldeak ez zuen partidarik jokatzerik izan; kadete partaidetza taldeak, aldiz, hitzordu bikoitza izan zuen –jardunaldikoa eta abenduan atzeratutakoa–. Sailkapeneko lehen postuetan dauden Atletico San Sebastian Aia eta Ordizia talderen aurkako norgehiagokak ziren eta, lesioak eta berrogeialdiak direla medio, kadete taldeak ezin izan zien egoera onean aurre egin.

Lehen partida hilaren 8an jokatu zuten Maialen Chourraut kiroldegian Atletico San Sebastian Aia taldearen aurka. Hasierako bi laurdenetan saskiratze gutxi izan zen. Atleticok defentsan presio handia egin zuen eta etxeko taldeak ezin izan zuen baloia ongi mugitu. Donostiako taldea ere ez zen fin ibili saski azpian eta atsedenaldira heldu zirenean zazpi puntuko aldea zuten.

Ahaleginak emaitzik ez

Nahiz eta hirugarren laurdenean dinamika bera mantendu, amaierakoan partida apurtu zuen Atleticok. Kontraerasoei esker, azkenengo hamar minutuetan lehenengo erdian baino puntu gehiago egin zituen eta garaipena bereganatu zuen. Azken emaitza 22-45 izan zen.

Hilaren 9an, berriz, sailkapeneko buru den Ordizia izan zuten aurrez aurre. Bi taldeak jokalari gutxirekin aurkeztu ziren hitzordura. Baina Aitor Las Ostadarreko kadete taldeko entrenatzaileak azaldu modura: "Kontrolatu zuten partida, bai taktikoki –zonan egindako presioari esker, kontrako punturik gabe lortu zuten lehenengo laurdena amaitzea–, bai fisikoki –erreboteetan nagusi izan ziren altuera eta indar aldearengatik– eta teknikoki". Ondorioz, aurkariak arazo gutxi izan zituen lehenengo erdian norgehiagoka erabakita uzteko, 46-3.

Bigarren erdian, ordea, Ostadarreko jokalariak esnatu, eta gogoz egindako defentsari esker, Ordiziakoen eraso konplexuari aurre egiten zioten baloia lapurtuz. Azken emaitza 67-14 izan zen.

Kadete partaidetzako prestatzaileak adierazi duenez, "Partida zailak izan ditugu asteburuan. Nahiz eta puntualki detaile positiboak erakutsi, argi ikusi da lehenengo fasean geratzen zaizkigun partidei begira asko dugula lantzeko".

Ohorezko Kadete taldeak garaipenarekin hasi du urtea

Ostadar SKTko taldeak Beasain 1-0 garaitu du Michelin kirol gunean jokatutako neurketan

Txintxarri

Ostadar SKTko Kadeteen Ohorezko mailako taldeak Gabonetan ez du ia atsedenik izan. Abenduaren 28an, II. LKE Eguberri Futbol Saria lehiatu zuen; urtarrilaren 8an, berriz, ligako 16. jardunaldia.

II. LKE Eguberri Futbol Sarian Altsasu eta Lazkao izan zituen aurrez aurre talde urdin-beltzak. Talde nafarra 3-1 garaitu eta etxeko taldearekin bana berdindu ostean, penaltietan erabaki zen saria. Ostadarrek ez zuen zorterik izan zazpi metroko marratik (5-3) eta Lazkaok eraman zuen lehen postua.

Ligako jardunaldian, berriz, Beasain izan zuen aurkari. Talde urdin-beltzak (1-0) gailentzea lortu zuen eta sailkapenerako puntu baliagarriak eskuratu zituen.

Igor Astiazaranek zuzentzen duen taldeak lehen fasea amaitzeko sei jardunaldi falta ditu eta sailkapeneko bosgarren postuan da. Lehen lau sailkatuek igoera fasea jokatuko dute eta azken partida hauetan gora egiten saiatuko da Ostadar.

Lehen hitzordu garrantzitsua hilaren 16an izango dute.

Jokolariak borrokan. TXINTXARRI

Sailkapeneko bigarren postuan den Antiguokoren aurka jokatuko dute urdin-beltzek.

Igoera edo kopa

Gainerako mailetan ere denboraldia aurrera doa eta taldeetako batzuek dagoeneko igoera zein Kopako lehen jardunaldia jokatu zuten hilaren 8an eta 9an.

Igoera fasea lehiatuko dute Ostadar SKTko 1. Erregionalak eta Texas Lasartearra taldeko kadeteek. Ostadar SKTko Jubenil 1. Mailako eta Kadete 1. Mailako taldeak, berriz, Kopa txapelketan ari dira.

Kadeteek garaipenarekin hasi dute Udaberri Txapelketa

Axier Arteaga, Arteaga II.ak, Bakaikoa ordezkatu du Promozio Mailako Binakako Txapelketan

Txintxarri

Intza Pilota elkarteko Jubenil eta Kadete 2. Mailako bikoteek Udaberri txapelketari ekin diote hilabete honetan. Zumaian jokatu zuen kadete bikoteak lehen jardunaldia urtarrilaren 8an. Xuban Urdalleta eta Beñat Olazabalek osatzen duen bikoteak ederki eman zion hasiera txapelketari garaipena eskuratuz, 9-22.

Jose Felix Solano prestatzailearen hitzetan, "partida ona jokatu zuten eta nagusi izan ziren".

Jubenil Mailako bikoteak, berriz, hilaren 14an jokatuko du txapelketako lehen partida Gazteluperen aurka.

Binakako txapelketa

Profesional mailara jauzi eginez, Axier Arteaga, Arteaga II.ak Bakaikoa ordezkatu du Promozio Mailako Binakako Txapelketako bi partidetan. Iker Elizegi lagun Salaberria-Erostarbe eta Larrazabal -Salaverri II.a izan ditu aurkari. Lehen partidan 14-22 galdu zuten; bigarrenean, ordea, arantza kendu zuten 22-12 gailenduz.

KOMIKIA

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	DE ORUE
LARUNBATA, 15	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 16	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 18	LASA
AZTEAZKENA, 19	GIL
OSTEGUNA, 20	GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

***URTE OSOKO GUARDIAK* APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

DAGOKIONARI

Erosketa bonoak direla eta

MIREN GURUTZE AGIRRETXE AGIRRE

Lasarte-Oriako Udalak herritarren eskura jarritako merkataritza bono kanpaina dela eta, nire kexa adierazten dut. Bonoak erosten saiatu naiz eta zailtasun asko izan ditut. Mirentxun hitzordua hartua nuen. Baina mugikorrean kodea sartua ez nuenez ezin izan dut bonorik erosi eta oso haserre atera naiz bertatik. Horrelako kanpainetan jende heldua diskriminizatua dagoela uste dut.

ESKUTITZA

Harrobiko gurutzea eta eraginortasun sinbolikoa

ASIER MIRON

Genesian azaltzen dira uholde unibertsalaren pasarteak. Berrogei egunez luzatu zen euritea amaitu zenean, Noek uso bat askatu zuen lurra aurkitu zezan.

Usoa itsasontzira itzuli zen mokoan olibondo adar bat zeramalarik: Gizonarekin(sic) bakean egotearen nahia adierazi nahi omen zuen jainkoa, sinbologiaz jantzitako mezu horren bitartez. Bibliaren pasarte horretan iruditutako zeinua eta jasotako mezuak, humanitatearen pentsamenduan mendez mende biziraun duen ideia hilezkorrean bilakatu da. Hitz larriez idatzitako ideiak eta kontzeptuak, fikziozko historiaz osatutako liburu baten bitartez adierazten ditugu gizakiok gaur egun oraindik ere. Zergatik?

Peter Burke eta Norbert Elias antropologoek, hizkuntza, bizi garen mundua irudikatzeko gizakiok dugun gaitasun sinbolikoa dela diote. Sinboloek maiz, izaera zehatzik ez duten objektu artifizial edota naturalak izan daitezken adierazpide arbitrarioak dira. Sinboloen esanahien adierazlea harrotzen duen prozesua zehaztugabea da; aurretik ezin baita jakin ze forma eta edukia izango duten hauek etorkizunean. Sinboloek, denboran zehar bildutako esanahi ugarien euskarriak diren heinean, gizakion eta gizartearen izaerari buruz informazio iturri emankorrean bilakatzen dira.

Horrenbestez, guztiz kontrakoak diren esanahi eta adierazpenak gorpuzteko gaitasuna eta aukera dute sinboloek ere. Victor Turner antropologoak, Zambiako Ndembu herrien erritualen behaketetan oinarrituta, sinboloen ulermenean eta interpretazioan ikuspegi berriak zabaltzeko ezinbestekoa ekarpena egin zion antropologiari. Turnerren iritziz, soilik arrazionalak diren interpretazioak ez dira nahikoak hauen izaeraren ulermenean sakontzeko. Mundua ulertu eta deskribatzeko moduak, hots, gizartea, historia, erlijioa edo ideologia oinarri duten irakurketaz haratago, gizakiontzako eta norbanakakoentzako konnotazio aunitzez osatutako ezinbesteko euskarriak dira sinboloak. Modu honetan, sentipen, desio eta bizipenen adierazpenak zentzumenen muturrean (polo sensorial) kokatzen ditu Turnerrek. Mutur honen izaera, emozionala badela ere esan dezakegu. Arauak, balioak, sinesmenak eta gizarte-antolaketaren adierazpenak berriz, mutur ideologikoan (polo ideológico) kokatu behar ditugu eskoziar antropologoaren arabera. Polarizatuak dauden bi mutur hauen izaera aldakorra da eta hauen artean ere, nolabaiteko transferientziak gertatzen dira. Nola ez da ba horrela izango! Halabeharrez, desplazemendu hauen bitartez egokitzen gara etengabe eguneroko bizitzan azaltzen diren egoera ezezagunei aurre egiteko eta ezagutzen ez ditugun lurraldeetan moldatu ahal izateko.

Izan ere, hutsik dagoen adierazle ezberdinen edukiontzian bilakatu daiteke sinboloa. Zeinu hauen izaera eta edukia, behin-behineko jabetza aitortzen diotenen subjektuak bezain heterodoxoak dira. Beethovenen bederatzigarren sinfoniak izan dituen erabilpen irrazionalak, aipatzen ari naizenaren adibidide garbia da: 'Alaitasunaren ereserkia', diktadore faxistak, asiako gobernu komunistak, Europako erakunde liberalak, Kataluniako independentistak nahiz fikzioak irudikatutako psikopatek amankomunean partekatzen duten artefaktu kulturala eta unibertsalean bilakatu da. Antzeko adibideak aurkitu ditzakegu sinbolismoz apaindutako kontzeptuetan ere: Zein izango ote da oraintxe, herrialde imaginario batean bizi direnentzat askatasuna hitzaren esanahi partekartua eta unibertsala?

Batzutan, koherentzia historikoaz jantzitako diskurtso askok, jende arruntak haragiztatutako esanahiarekin ez datoz bat. Horregatik komeni da, iragan ez desiatu batean sortutako adierazpen sinboliko anakronikoak, gaur egun jendartean duten onarpena, gaitzespena edo axolagabekeria ondo baino hobeto ezagutzea. Azken finean uste dut, iragan distopiko baten aztarnak desagerarazi nahi duen ekintza ikonoklasten azken helburua ez dela izanen, ondoan bizi denarekin trifulka dialektiko nekagarri eta negargarrietan aritzea. Ondo baino hobeto badakigu, memoria historikoa edo kolektiboa deitzen diogun hori, 8 pulgadako diskete zaharkitu batean sartzen diren testu artxiboen kopuruaren tamainakoa dela. Dena den, hamarkadaz-hamarkada, Arabako herrixka batetik etorritako jainko antropofago horren gosearen lekuko isilak izan garelaren memoria, ez luke behar inolako euskarri digital berezirik gordetzeko.

Amaitzeko, argi utzi nahi nuke aurretik idatzita azaltzen diren ideiak, gertuko gatazka bat aztertzeko, ulertzeko eta deskribatzeko saiakera xumea besterik ez dela izan. Beti ere, antropologiak eta gizarte zientziek eskaintzen dituen tresnak erabiliz. Norbaitek pentsatzen badu, nire iritzia eman ordez, erdiko posizio neutro batean kokatu naizela, esan diezazuket gai honi buruz dudan iritzi xumea, txio batean kabitzen dela. Azken finean, nire iritzia da, hain zuzen ere, gai honen analisiarako inolako interesik ez duen gauza bakarra. Baldin eta, ahalik eta zehatzen eta hobeto ulertu nahi baditugu horrelako gertaeren aurrean gizartean pizten diren filiak, fobiak, tentsioak eta pultsioak. Uste dut horrelako ekintzek beti egon beharko luketela gizartera zuzentzen zaren praktika eta diskurtsoen zerbitzura, eta inoiz ez, agian plazer handia eragingo duen, desira endogamikoa areagotuko duen orgasmo kolektibo baten menpe. Betiere, zure helburua gizartea ezagutzen dugun bezala eraldatzea bada.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINTZA

Etxeko lanak egin eta bi pertsona adindu zaintzeko pertsona behar da. Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-prestakuntza izan behar dute. Salbuespenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratua, nomina eta Gizarte Segurantzan alta ematea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia: 656 41 15 10

Klase partikularrak emateko pertsona behar da. DBH mailan. interesatua bazaude jarri harremanetan *irakasle@yahoo.com* bidez.

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest.Harremanetarako zenbakia: 616 83 11 52.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ZORION AGURRAK

Julen eta Jesus
Zorionak bikote! Muxu handi bat familiaren partez.

Oier
Zorionak Oier! 16 urte konturatu gabe! Segi horrela txapeldun!

Beñat
Zorionak terremoti! 5 urtetxo betetzen dituzula!! Oso ondo ospatu! Maitagarria zara! Muxu asko familiaren partetik.

Maddi
Oju! Rebujito eta peineta, salsa eta merenge! Hori da hori ekintza pila! Hurrengo bazkarian pausu batzuk eginaz erakutsi zenbat ikasi duzun! Zorion agurretarako ez daukagu zure grazia! Kar, kar, kar. Zorionak Maddi!!

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA ERAKUSKETA. Zurmailu zurlanketa elkarteak erakusketa ireki du Antonio Mercero aretoan, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. Urtarrilaren 23ra arte egongo da zabalik, igandez, egun hori barne. Astegunetan joan nahi duenak 18:00etatik 20:00etara izango du horretarako aukera, eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta lasarteoriatarrak gonbidatu dituzte egurrez egindako artelan horiez gozatzera. Zurmailuko lagunek nabarmendu dutenez, 60 lanetik gora jarri dituzte ikusgai: kideetako bakoitzak hiruzpalau eraman ditu. Horien artean: armarriak, koadroen erreplikak, makilak, altzariak, erretratuak, argazkietan oinarritutako lanak, eta beste hainbat.
Urtarrilaren 23ra arte, Antonio Mercero aretoan. Astelehenetik igandera zabalik.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Zinema
Seis días corrientes filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek sei euro balio dute. Txartelak sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Antzerkia
Markeliñe Teatroa konpainiak *Ganbara* antzezlana taularatuko du. Sarrerek lau euro balio dute, eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema
Encanto filma proiektatuko dute etxeko gazteenentzat. Sarrerek lau euro balio dute, eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La familia Bloom filma emango dute. Sarrerek sei euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Lasarte-Oriako Euskara Batzordeak eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean egiten duten Gurasolandia egitasmoko kideentzat solasaldia egingo dute Gurutze Gorriko kideek: *Larrialdiak eta gaixotasunak: jaioberrientzako lehen sorospenak.* Zenbait egoeratan zer egin jakiteko gomendio eta aholku zehatzak emango dituzte. Izena emateko 695 78 53 89 telefono zenbakira edo *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzi beharko dute interesa dutenek.
Antonio Mercero aretoa, 17:30ean.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Antzerkia
Mi hijo solo camina más lento antzezlana oholtzaratuko du Tanttaka Teatroa konpainiak. Sarrerek hamabi euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema
Clifford el gran perro rojo filma proiektatuko dute. Sarrerek, lau euro.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
West Side Story filma emango dute. Sarrerek sei euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Literatura
Eduardo Galeanok idatzitako *Latinoamerikaren zain urratuak* saiakera euskaratu du Iñaki Alegriak berriki. Liburu hori aurkeztera etorriko da.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema
Libertad filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek sei euro balio dute.
Kultur etxea, 20:30ean.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema
El valle de las linternas filma proiektatuko dute. Sarrerek lau euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Cerca de ti filma emango dute. Sarrerek sei euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

KULTUR ETXEA

'Seis días corrientes'
Ostirala 14
20:30.
'Encanto'
Igandea 16
17:00.
'La familia Bloom'
Igandea 16
19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Sing 2'
Larunbata 15
17:00.
Igandea 16
17.00.
'The King's Man'
Larunbata 15
19:30, 22:00.
Igandea 16
19:30, 22:00.
Astelehena 17
19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

'Spiderman'
Ostirala 14
15:50, 17:00, 18:20, 20:20, 21:45.
Larunbata 15
15:50, 17:00, 18:20, 20:20, 21:45.
Igandea 16
15:50, 17:00, 18:20, 20:20, 21:45.
'Scream'
Ostirala 14
16:50, 19:35, 22:10.
Larunbata 15
16:50, 19:35, 22:10.
Igandea 16
16:50, 19:35, 22:10.
'Sing 2'
Ostirala 14
15:50, 18:35.
Larunbata 15
15:50, 18:35.
Igandea 16
15:50, 18:35.
'The Matrix Resurections'
Ostirala 14
15:45, 18:30, 21:40.
Larunbata 15
15:45, 18:30, 21:40.
Igandea 16
15:45, 18:30, 21:40.
'Mamá o papá'
Ostirala 14
15:45, 19:10, 21:20.
Larunbata 15
15:45, 19:10, 21:20.
Igandea 16
15:45, 19:20, 21:10.
'Moonbound'
Ostirala 14
15:05, 18:05, 20:15.
Larunbata 15
15:05, 18:05, 20:15.
Igandea 16
15:05, 18:05, 20:15.
'The Vault'
Ostirala 14
15:55, 22:15.
Larunbata 15
15:55, 22:15.
Igandea 16
15:55, 22:15.
'West Side Story'
Ostirala 14
21:35.
Larunbata 15
21:35.
Igandea 16
21:35.

LABURPENA

'Seis días corrientes'
Zuzendaria: Neus Ballus. **Gidoia:** Neus Ballus, Margarita Melgar. **Argazkia:** Anna Molins. **Musika:** Rene-Marc Bini. **Ekoizleak:** Distinto Films, El Kinograf, Movistar+, TVE, TV3. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Iraupena:** 85 minutu. **Generoa:** Komedia. **Aktoreak:** Valero Escolar, Mohamed Mellali, Pep Sarra, Pau Ferran.

Hiru iturginen eguneroko jardunaz

Neus Ballus zuzendariak hiru iturginen egunerokoa erakutsi du *Seis días corrientes* filmean: Moha, Valero eta Pep dira, eta mota guztietako egoerak topatzen dituzte astelehenetik larunbatera, bizilagunen etxeetara joaten direnean konponketak egitera. Marokotik etorritako behargina da Moha, eta astebetean erakutsi beharko du gai dela erretiroa hartzear den Pep ordezkatzeko. Fin lan egiten badu ere, Valerok uste du bere profila ez dela "egokia", eta gainera, ez du uste bezeroek etorkin bati euren etxeetan sartzen utziko diotenik.

Langile klasea aldarrikatzearekin batera, arrazakeria eta axolagabekeria bezalako joerak kritikatzen ditu Ballusek. Hona bitxikeria bat: filmeko hiru protagonistak ez dira profesionalak, eta euren burua interpretatzen dute.

Landaberri IKASTOLA LASARTE-ORIA

baikara Gipuzkoako IGEen federazioa

landaberri GURASO ELKARTEA

MATRIKULAZIOA 2022-2023

Landaberri ikastola — Lasarte-Oria

Urtarrilaren 17tik 28ra

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikula

Gure herrian bertan euskaraz!
ZATOZ

LANDABERRI IKASTOLAKO
HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN PROIEKTUA

- **Euskal Kultura eta euskara** bultzatzen dituena.
- 2 urtetik aurrera.
- **Herrian integratutako plangintza**.
- **Atzerriko hizkuntza**: ingelesa 4 urtetik aurrera.
- **Teknologia**: baliabide teknologikoak curriculumean.
- **Aniztasunaren trataera**: behar bereziak dituzten ikasleentzat.
- **Bizikasi** ekimena: elkarbizitza giro on bat bideratzeko.
- A30: ingurumena zaintzen.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak**.
- **Garraio zerbitzua**.
- **Jangela** zerbitzua **HH2tik aurrera.**
- **Goizeko harrera zerbitzua**: 08:00-09:00.
- **Eguerdiko zaintza zerbitzua goizez gaudenean** (iraila eta ekaina).

Presentzialki egin matrikula hitzordua eskatuz edo on-line hezkuntzaren webgunean.

BILERA INFORMATIBOA
URTARRILAREN 17AN 17:30EAN
(ezinbestekoa izena ematea)

www.landaberri.eus
943-37 06 62
landabulego@landaberrikastola.org